



AGINDUA, 2020KO MARTXOAREN 5KOA, ENPLEGUKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILBURUARENA, ENPLEGUKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILAREN 2020. URTERAKO DIRU-LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA ONARTZEN DUEN AGINDUA ALDATZEN DUENA.

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 8.1. artikulua ezarritakoaren arabera, *“diru-laguntzen ezarpena proposatzen duten administrazio publikoetako organoek, aldez aurretik, diru-laguntzen plan estrategiko batean zehaztu beharko dituzte berau aplikatzean lortu nahi diren helburuak eta ondorioak, baita horiek lortzeko epea, aurreikusten diren kostuak eta haiek finantzatzeko iturriak ere, betiere aurrekontu-egonkortasunaren helburuak betetzearen baldintzapean”*. Arau horrek Estatuaren oinarrizko legearen izaera du.

Aipatutakoa betez, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak 2020 urterako Diru-laguntzen Plan Estrategikoa onartu zuen, azaroaren 22ko Aginduaren bidez.

Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzak “Lagunkoitasun Jardunbide Egokien Saria” ematea proposatzen zuen, lehia-konkurrentziako prozedura baterako dei eginez. Horren bidez, publikoki aintzatetsi nahi dira zahartzen ari diren pertsonentzat erraztaileak diren inguruneak sortzerakoan lagunkoitasun-terminoetan beren berrikuntza eta efikaziagatik nabarmentzen diren praktikak garatzen dituzten entitate publiko eta pribatuak.

Ekimen hori ez dago sail honen 2020. urterako Diru-laguntzen Plan Estrategikoan; hori dela-eta, plan hori aldatu behar da, indarrean dagoen legeria betetzeko.

Goian adierazitakoa kontuan hartuta, eta Lehendakariaren azaroaren 26ko 24/2016 Dekretuak (Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioiko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituenak eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituenak) emandako eskumenen arabera, apirilaren 11ko 75/2017 Dekretuarekin lotuta (Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena), honako hau



EBAZTEN DUT

Lehenengoa.- Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailaren 2020. urterako Diru-laguntzen Plan Estrategikoa aldatzea, eta, horrenbestez, “Lagunkotasun Jardunbide Egokien Sariari” dagokion 2020. urterako Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzaren diru-laguntzen lerroa gehitzea, agindu honen 2., 3. eta 4. eranskinetan deskribatzen den moduan.

Bigarrena.- Agindua argitara ematea, Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailaren webgunean argitaratuz eta unean-unean antolamendu juridikoan informazioaren eta gardentasunaren arloan aurreikusten diren xedapenak aplikatuz.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko martxoaren 5a

Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburua

BEATRIZ ARTOLAZABAL ALBENIZ.

GIZARTE ZERBITZUEN ZUZENDARITZA

2. eranskina: Ardatz estrategikoak eta diru-laguntzen lerroak: Helburuak, ekintzak eta adierazleak

2. eranskina: Ardatz estrategikoak eta diru-laguntzen lerroak: Helburuak, ekintzak eta adierazleak		
1. helburu estrategikoa: gizarte-zerbitzuen sistema publikoaren garapenean esku hartzen duten eragile guztiekin, bai instituzionalekin bai sozialekin, sare-lana bultzatzea eta indartzea		
Diru-laguntzen 45. lerroa: Lagunkoitasun-jardunbide egokien 2020. urterako sarria		
Organoa: Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza		
1. programa: (3123) Gizarte Zerbitzuak) Lagunkoitasun-jardunbide egokien 2019. urterako sarria	2020	
1. helburua. Herritarren eta sektore publiko, pribatu eta sozialaren parte-hartzea sustatzea, Euskal Autonomia Erkidegoan zahartzen ari diren pertsonen bizimodua erraztuko duten inguruneen sorrera sustatzeko lagunkoitasun-mugimendu bat garatu dadin.		
1. ekintza: Lagunkoitasun Jardunbide Egokien Sariaren deialdia		
1. adierazlea: aurkeztutako hautagaitza kopurua		
2. adierazlea: aurkeztutako hautagaitzetan parte hartu duten pertsonen kopurua		
		3.000 €

3. eranskina: Ardatz estrategikoak eta diru-laguntzen lerroak: Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa publiko osoarekiko finantzaketa-ehunekoa

1. helburu estrategikoa: gizarte-zerbitzuen sistema publikoaren garapenean esku hartzen duten eragile guztiekin, bai instituzionalekin bai sozialekin, sare-lana bultzatzea eta indartzea		
Diru-laguntzen 45. lerroa: Lagunkoitasun-jardunbide egokien 2020. urterako sarria		
Organoa: Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza		
1. programa: (3123) Gizarte Zerbitzuak) Lagunkoitasun-jardunbide egokien 2020. urterako sarria	2020	
	Zenbatekoa eurotan	%
4. kapitulua:	3.000 €	% 100
Guztira:	3.000 €	% 100

4. eranskina: Ardatz estrategikoak eta diru-laguntzen lerroak: Diru-laguntza jaso dezake(t)en sektorea(k) eta laguntza emateko prozedura

1. helburu estrategikoa: gizarte-zerbitzuen sistema publikoaren garapenean esku hartzen duten eragile guztiekin, bai instituzionalekin bai sozialekin, sare-lana bultzatzea eta indartzea		
Diru-laguntzen 45. lerroa: Lagunkoitasun-jardunbide egokien 2020. urterako sarria		
Organoa: Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza		
1. programa: (3123) Gizarte Zerbitzuak) Lagunkoitasun-jardunbide egokien 2020. urterako sarria		

Sektore hartzaileak	Administrazio publikoak, beren sektore publikoen parte diren entitateak eta egoitza soziala EAEn duten eta jarduera nagusia bertan garatzen duten pertsona juridikoak.
Emateko prozedura	Lehiaketa bidezko konkurrentzia.